

2016-17ko EPEko euskara-probari buruzko informazio-oharra (Ezagutza espezifikodun Fakultatiboen eta Biologiako FTen deialdiak)

Probak: tokiak eta datak

Ezagutza espezifikodun Fakultatiboen eta Biologiako FTen deialdiko euskara-probak (2016-17ko EPEa) 2020ko martxotik aurrera egingo dira.

Idatzizko proba 2020ko martxoaren lehen astean izango da, **Gasteizen**. Laster, informazio gehiago izango duzue eskura Osakidetzako 2016-17ko EPEaren webgunean.

Hizkuntza-eskakizunen azterketetan izena ematea

Ezagutza espezifikodun Fakultatiboen eta Biologiako FTen deialdietan (2016-17ko EPEa) izena ematean euskara-proba egitea eskatu zuten izangaiek ez dute berriro izena eman beharko.

Ezagutza espezifikodun Fakultatiboen eta Biologiako FTen deialdia dela-eta (2016-2017ko EPEa), hizkuntza-eskakizunak ziurtatzeko azterketak egin ahal izango dituzte izangai hauek: **oposizio-fasea gainditu dutenek**, hautaketa-proben emaitzen zerrendak dituzten Ebazpenen arabera; baita probak gainditu ez badituzte ere, ebazpen horien kontra epe barruan erreklamazioa aurkeztu dutenek ere, **behin-behinean**. Bi kasuetan nahitaezkoa izango da hizkuntza-eskakizunen probak egiteko eskabidea jasota izatea, hurrengo paragrafoan xedatutakoari jarraikiz.

Hizkuntza-eskakizunak ziurtatzeko azterketak egiteko aintzat hartuko dira Ezagutza espezifikodun Fakultatiboen eta Biologiako FTen deialdian (2016-2017 EPEa) izena emateko eskabidean egindako eskaerak (hautagaiek kontsulta pertsonalizatuen bitartez egiaztatu dezakete), eta geroagoko aldaketetan egindakoak.

Beren eskabidean hizkuntza-eskakizunen azterketak egiteko **(1. HE eta/edo 2. HE)** aldaketak egin nahi dituztenek **2020ko otsailaren 5etik 11ra** izango dute aukera. Horretarako, **eskaera erregistratuta** bidali behar zaio Hautaketa eta Horniketa Zerbitzuari (2016-2017ko EPEa): Araba kalea 45, Vitoria-Gasteiz (01006); edo helbide elektronikoa honetara: epe-ope@osakidetza.eus

2020ko otsailean, Ezagutza espezifikodun Fakultatiboen eta Biologiako FTen deialdietako euskara-probetara **deitutako pertsonen behin betiko zerrenda** argitaratuko du Osakidetzak.

Deialdi honetan lau gaitasun-probak (ulermena eta adierazpena, ahozkoa eta idatzizkoa) gainditzeko dituzten EPEko izangaiei **hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiri ofiziala** emango zaie. Gainera, Ezagutza espezifikodun Fakultatiboen eta Biologiako FTen deialdian **merrezimendu edo/eta betekizun** gisa baloratuko da, deialdiaren oinarrietan zehaztutako baldintzetan.